

## hondo-hondotik

Jose Luis Alvarez Enparantza, 'Txillardegi'

(Idazlea)

# Meniatik Auto-Determinaziora

**E**ugenio Irastortza ordiziarrak marka hits guztiak urratuz, aurki beteko ditu barruan 22 gartzelaturte.

Ia-ia aste berean, 20 urte luze eta garratz preso eman ondoren, irten berria da Itziar Galardi oiartzuarra, emakume presoan saillean gailenduz.

Hala ere, «kolore guztietako» biktimak sutsuki defendatzeko prest omen diren batzuk, ez ditugu oso nabarmen ikusten.

Jokabide bitxi hau azaltzeko eskatuz gero, honelako zerbait entzungo genieke berehala: «*No confundamos las cosas. Estos han pagado las penas que les han correspondido por sus actuaciones violentas contra el Estado de Derecho vigente.*»

Baina herri bat zapalduta, ukatuta, zafrututa, asimilaziora kondenatuta dagoen legetasunean, ez dago «*Estado de Derecho*»-rik». Demokrazia herrien berdintasunaren gainean eraikitzen baita.

Baina goazen Iruñera.

Hantxe daude 11 gazte abertzale, goseoporrean orain dela 25 egun. Mesprexturik, ahazturik, inolako oihartzunik ezean ezindurik. Non dira «*pacifista*» ofizialak? Zer gertatzen da orain ere isil daitezten, bisitatzera bederen ager ez dakizkien?

Gose-grebalariok Auto-Determina-

zioa eskaten dute, Euskal Herriaren lurraldetasunaren errespetua, hizkuntz eskubi-deena.

Abertzaleen «metodoak» bakarrik gaitzesten omen dituztenak, ordea, mutu, elbarri, gor. Agertu ere ez!

Gauzak horrela «*Los vascos no existen, pero resisten*» artikulua argitsua plazaratu du Jose Maria Lorenzo Espinosa histori-irakasleak.

Eta gertakarien bilduma argi-egile hori ezin egokiago dator.

1839az geroztik (163 urte!) Hego Euskal Herrian, bortizkeriaz ezarritako «*unidad constitucional*» delakoa dago gidari eta epaile goren.

Geroztik hemen Espainiak agintzen du (1789az geroztik Iparraldean Frantziak agintzen duen bezalaxe).

Eta inork zalantzarik baldin bazuen, «*Concierto Económico*»-aren negoziaketan agertu da garbi «*España de las Autonomías*» zer den.

Hemen Madrilek agintzen du, eta Lakuak eta Pamplonak obeditzen.

Honetarako balio izan du joan den maiatzeko garaipen elektoralak? Horretarako behar genuen Jaurlaritza «abertzalea», PNV eta EA alderdi «abertzaleek» gidatua?

Gehiengo omen dugularik hori baldin

bada dena, 163 urte galdu ditugu. Eta «*Viva Euzkero*» oihukatzea aski genuen!

Lorenzo lumakideak egokiro azaltzen zuenez, alderdi «abertzaleen» gaineko frentismoaren egin du. Jaurlaritza, irakurleok, espainiar Estatuaren delegazio errejonala besterik ez da. Hemen, anti-euskaldunekin bat eginik, errejonalistek agintzen dute.

Aukera ez da: oraindik ez omen dugun «Autonomia»; vs. oraindik ez dugun «Auto-Determinazioa». Autonomia hau baita. Baita PSOE eta PP gabeko Autonomia ere zer izan daitekeen bada: orain dugun hau.

Errejonalistek ez dituzte, ordea, 22 urte hauek galdu. Ez horixe! Instituzio guztietan, guztietan diot, berek agintzen dute.

Politikoetan, ekonomikoetan, kulturetan (are hizkuntzarenetan ere) espainolistak eta errejonalistak, esku esku, erabat nagusi.

Eta denetatik at gelditu dira (gelditu gara) abertzaleok.

Ajuria-Enearen lehenengo zikloa hetsia da, bere fruituak eta guzti. Hemen ditugu

«*la sana autonomía, el sano bilingüismo, el sano concierto, la sana policía autonómica, la sana escuela y la sana universidad no separatista, la sana y apolítica televisión vasco-nortea, el sano regionalismo, y hasta el cocidito madrileño y las sevillanas*» bazter guztietan.

Orain zer?

Orain abertzaleok bat, ala putzura.

Instituzio ofizialen gainetik, noski.

Eta etsaia batzen eta abertzalegoa porrokatzen duen guztia baztertuz.

Hots, gaur egun, eta meniari gabe, etsaia baturik eta abertzaleok zatiturik jarraituko dugu. Meniarik eza etsaiaren helburua baita. Ez gurea. Zergatik? «*Un vaccin est un virus faiblement actif, susceptible de conférer l'immunité, mais inoffensif pour le sujet auquel il est inoculé*» irakur dezakegu fran-

tses hiztegi famatu batean.

Gaurko kale-borroka eta bortxa-ekintzak, oro har, benetako txertoak dira. Eta frantses hiztegiaren ematen diren definizioei atxekitzen zaizkie hertsiki. Nork nahi zuen eta nork nahi du

gauzak beren horretan jarraitzea? Nork sabotatu zuen Lizarra-Garazi abiapuntua? Abertzaleok ala Aznarrek? Noren mesedetan gertatu da etendura hura?

Otoi, aberkideok. Irek begiak!

Ez gaude 1833an, ezta 1950an ere.

Zernahiren gainetik, abertzaleon arteko batasuna behar dugu. Gaur: meniatik Auto-Determinaziora.

### MENIARIK EZEAN

#### Etsaia baturik eta abertzaleok zatiturik jarraituko dugu

## Tontxu Campos

(Ekonomi Sustapeneko Bizkaiko foru diputatua eta Eusko Alkartasuneko kidea)

# Enpresa txiki eta ertainekiko gure konpromisoa

**E**npresa txiki eta ertainek ahalmen izugarria eskaintzen dute egungo euskal ekonomian. Enpreson orainak itxaropenez betetzen gaitu etorkizunera begira. Baina enpresa lehiakor orok bezala, kudeaketa etengabe hobetu behar dute, eta lankidetzak iraunkorra behar du. Horregatik, zuzendari naizen sailean Eraberritu 2002 Egitaraua aurkeztu berri dugu, hain zuzen, Bizkaiko Lurralde Historikoko enpresa txiki eta ertainen lehiarako ahalmena hobetzen sustatzeko egitaraua. Nire ustez, egitarau hori enpresari txiki eta ertain guztiak interesatzen zaie; horregatik idatzi ditut lerro hauek, eta ondoko gomendio hau egiten dut: enpresa txiki zein ertain orok egitarau horren ezaugarrien gaineko informazioa ondo har dezan, laguntza handikoa izango zaio-eta. Arestian esandako interes agerian uzten duten zertzelada batzuk eskainiko ditut: 2002 urte honetarako, Eraberrituko 6,525 milioi euroko aurrekontua dauka. Aurreko edizioetan jasotako eskarrietan oinarritzen diren gure aurreikuspenen arabera, aurten enpresetatik 355 eskari

gingo zaizkigula espero dugu, guztira sei mila enplegu zuzenez; eta 40 milioi euroko inbertsioetara iritsiko direnak.

Azkeneko edizioan Eraberrituko 232 enpresari lagundu zien, guztira 33 milioi euroko inbertsioaz, eta 5.200 enplegu zuzenez; beraz, egitarau horrek edizio berri bakoitzean gora doan interesa pizten du.

Hona zer lortu nahi dugu Eraberritu egitarauarekin: Bizkaiko Enpresen lehiarako ahalmena hobetzea sustatzea; enpresen beharretara doitutako laguntzen eskema eskaintzea, herri baliabideen zentzuzko erabilpena ahalbidetuko duena; laguntzei denborazko egonkortasuna ematea, enpresari lehiarako ahalmena hobetzeko epe ertain eta luzerako politikak prestatzeko aukera eskaintzeko; gizarte agentia guztien arteko lankidetzak sustatzea, horixe baita etorkizunari aurre egiteko biderik onena.

Azken batean, Eraberrituko enpresa etengabe hobekuntzaren ikuspegitik kudeaketa sustatu nahi du, non zuzendaritza estila, enpresako kultura eta pertsonak oinarritzko osagaiak izan daitezten. Gainera, hel-

buru estrategiko gisa, gogoeta prozesuak egin eta praktikan jartzea sustatzen da, kudeaketaren analisi integrala egin ahal izateko, Enpresa Bikaintasuneko Europar Ereduaren ikuspegitik (EFQM). Beraz, enpresaren jarduerak kudeaketako sistemaren azterketa zurrunean egin eta hobetzeko prozesuan kokatu nahi dira, prozesu horren ondoren enpresak kudeaketa sistema hobetzeko planari ekin diezaion. Izan ere, Sailak hobetzeko planaren ezarpenean eta ebaluazioan aurrera egiten dela egiaztatzen etorkizuneko egitarauaren laguntzei eutsi ahal izateko baldintzatuko du. Egitarauak, beraz, enpresak antzemandako beharren sostengua eta kudeaketa modu ordenatu eta metodikoan hobetzea batu nahi ditu.

Enpresentako laguntza ekonomiko batzuek ezartzen ditu, aipatutako jardueretarako, eta kudeaketaren hobekuntza planak egiteko ere bai. Lehiatzeko ahalmena hobetzea, funtsean, kudeaketa hobetzetik be- girtzen da; horren harira, lehen aipatutako EFQM kudeaketa eredu hartu da erreferentzia legez. Hona hemen EFQM eredu-

ren oinarriko balioak: bezeroarengana orientatzea, zuzendaritzaren aitzindaritza, pertsonen partaidetza, etengabe hobetzea, prozesuen araberrak kudeaketa, datuetan oinarritutako erabakiak hartzea.

Amaitzeko, aipatu nahi nuke zeintzuk diren egitarau horren onurei eutsi ahal dieten enpresa motak: enpresa txikiak, jarduera nagusia ondokoren bat dutenak: industria, eraikuntza zein industriari erantsitako zerbitzu enpresak; 50 langiletik gora ez dutenak; ondoko muga hauek dituztenak: 7.000.000 euroko urteko negozio bolumena; 5.000.000 euroko balantze orokorra; baldintza hauek pilagarriak dira; enpresa bat txikitat jotzen da langile bolumenaren muga gaintzen ez badu eta, gutxienez, negozio bolumenari eta balantze orokorrari buruzko beste bi muga horietako bat gaintzen ez badu.

Prozesuaren eremuan, azterketen atalean, onartuko diren enpresarik handienak honakoak izango dira: 100 langiletik gora ez dutenak, ondoko muga hauek dituztenak: 14.000.000 euroko urteko negozio bolumena, 10.000.000 euroko balantze orokorra.

Uste dut gure enpresa txiki eta ertainek beraiengan jartzen dugun fedea benetan sinets dezaten nahikoa arrazoi eman dugula: enpresa horiek dira gure ekonomiaren orainaren eta geroaren oinarria, eta guk, Eraberritu bezalako egitarauen bidez, gure babesik handiena eskaini nahi diegu.